



Kutxa didaktikoa Genero ikuspegia

Genero ikuspegia izeneko kutxak genero-estereotipoen inguruan zeharka eta ikuspegi historikoarekin gogoeta egitera gonbidatzen duten objektuak ditu.

Nekazaritza

Nafarroako laia

Forjatutako burdinazko lanabes tipikoa zurezko heldulekuarekin, eta izatez euskalduna, binaka erabiltzen delarik lurra landu eta iraultzeko.





Arrantza

Arrantza-sareak konpontzeko orratza

Arrantza-sareak konpondu eta josteko erabiltzen den lodiera handiko orratza. Emakumeek egin ohi duten lana.

Joskintza

Saretzeko arrautza

Zurezko arrautza ehun-janzkiak eta galtzerdiak saretzeko. Orain dela gutxi arte, galtzerdietako zuloak, patriken hondoak eta arropa orokorrean konpontzen ziren. Arrautzari esker, arropak errazago josi daitezke, euskarri gogor eta moldakorraren funtzioa betetzen baitu.

Saretzea ehunaren zuloak harizko puntadez betetzea da, bilbea eta irazkia berrosatuz.



Garraioa

Burutea

Burua babesteko eta txanbila egonkortzeko kuxina, eskuen laguntzarik gabe eramateko (urketariak).



Etxeko ekonomiaren kudeaketa

Sakela

Emakumeek gona azpian gerrian lotuta zeramaten poltsikoa, dirua, gutunak edo ezkutuko dokumentuak eramateko aukera ematen ziena. Euskaraz etxeko emakumeari «etxekoandre» deitzen zaio eta, normalean, etxeko ekonomiaz arduratzen zen pertsona da.

Etxearen zaintza

«Senarra» edo ohe-berogailua edo ur-poltsa

Oheak berotu, familiari erosotasuna eskaintzeko. Oihal lodiz forratutako letoizko ontzia da eta ur beroz betea, ohean beroa mantentzeko balio zuen. Lagunartean, «senarra» esaten zitzaion.



Sukaldea

Zurezko zakote-ontzia

Etxetik kanpo (landara, mendira, etab.) lan egitera doan gizonarentzako janaria prestatzeko eta eramateko zurezko ontzia.

Abeltzaintza / Artzaintza

Kaikua

Jetzaldian ardi- eta ahuntz-esnea biltzeko diseinu ergonomikoko ontzia. Urki-zurezkoa da, artzain-tradiziokoa, eta jezteko ez ezik, esnea egosteko ere erabiltzen da, aurretik sutan berotutako harriak sartuz. Artzain-kulturaren funtsezko pieza da, bere moldakortasunean eta arintasunean oinarritutako diseinuagatik.



Garbiketa

Terreina, oihala eta errautsa

Zinkez egindako terreina, non arropa uretan jartzen zen. Arroparen gainean, irazki lana egiten zuen izara zahar bat jartzen zen eta horren gainetik errautsa. Errautsen gainera ur beroa isurtzean, lixiba bihurtzen da.

Emakumeen higieena

Oihal-konpresa

Felpazko oihal xurgatzailea (kotoizko ehun lodia), hilekoaren odola biltzeko erabilia. Hiru zatitan tolesten zen eta hanken artean egokitzen zen barruko arroparen laguntzaz. Erabili ondoren garbitu eta gero lixibaz bustitzen zen zuritu arte.

